

## BASOZAINEI DEI EGIN

- Izokina sare barnean mantenduko dugu urpean eta Basozainei deituko diegu (686 50 28 33).

- Basozainek izokina hartu eta zainduko dute, arraina indarbertitzeko, ahal den neurrian sufrimendurik eragin gabe.

- Une honetan, nahi izanez gero, argazkia egin dezakegu, izokina uretatik bere osoan atera gabe; horretarako, haren sabelaldea goxo-goxo pausatuko dugu esku batean, eta bertzearekin, berriz, isatsaren alde estuari helduko diogu.



- Batez ere, **EZ DEZAGUN ALTXATU IZOKINA ISATSETIK**, buruz beheiti utzita. Barnean kalteak eragiten ahal dizkiogulako.



## IZOKINA IBAIRA ITZULTZEA

Basozainek behar diren datuak hartu eta izokinari irradi-transmisore bat paratuko diote (kasuaren arabera, hantxe berean edo arrain-haztegian). Gero arrantzale babeslearekin solas egingen dute, izokina askatzeko unea adosteko. Arrantzaleak ere erabaki dezake izokina arrain-haztegiara eramatea, han ugaltzaile gisa erabiltzeko.



## IZOKINAREN JARRAIPENA EGITEA

Basozainek ziurtagiri bat egingen dute arrantzaleak harrapatu eta emaniko izokinaren datuekin. Arrantzale babesleak informazioa eska dezake izokin horren bilakaerari eta mugimenduei buruz.

## URREZKO LAU ARAUAK

Uretan askatzen dugun izokin bakoitzari esker, etorkizunean izokin gehiago izanen dira.

Helburua da izokinek eta arrantzaleek urtero ibaian elkar topatzea.

1. Garrangarik gabeko amuak erabiliko ditugu edo garranga leundutakoak.
2. Laburtu dezagun borroka-denbora.
3. Mantendu dezagun izokina denbora osoan uretan.
4. Basozainei lehenbailehen deituko diegu.

Hona hemen izokinak babesteko Basozainen zenbakia:

**686 50 28 33**



Irekibai

www.irekibai.eu



Proiektuak Europako Erkidegoko LIFE finantza-tresnaren laguntza jaso du

Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra

Nafarroako  
Ingurumen  
Kudeaketa, S.A.



Gestión  
Ambiental de  
Navarra, S.A.




Arrantzale zaren hori,  
**IZAN ZAITEZ  
BIDASOKO  
IZOKINAREN  
BABESLE**



Bidasoan izokinak harrapatzen ditugunok, edota horretan saiatzen garenok behintzat, espeziea suspertzen lagundu dezakegu, arrantzatzen ditugun arrainei bigarren aukera bat emanda. Nola? Harrapatzen ditugun izokinak babestuz.





### Sarea nola erabili

- Diametro handiko sare bigun bat erabiliko dugu. Sareak ez du korapilorik izan behar.
- Saiatu behar dugu izokina uretan mantentzen.
- Ez ditugu erabiliko arrainari kalte egin ahal dizkioten gakoak edo bertzelako tresnak.
- Izokina ahalik eta gutxien maneiatuko dugu: ez dugu isatsetik zintzilikatuko eta ez dugu uretatik aterako.
- Zakatzak izokinaren atalik sentikorrrenak dira. Ez ditugu ukituko.

### Amua uretan kenduko diogu

- Amura ahoaren kanpoaldetik iritsi bagaitezke, kendu eginen diogu izokina ukitu gabe. Horrela ez dugu mukosa kaltetuko. Mukosak arraina infekzioetatik babesten du.
- Amua aise kendu ez badaiteke tresna berezi bat erabiliko dugu ateratzeko. Horretarako izokinari ongi heldu beharko diogu, baina estutu gabe.
- Amua hagitz sakon badago, onena da haria amutik ahalik eta hurbilen moztea eta bertan uztea; horrek min txikiagoa eginen dio amua ateratzeak baino, eta izokina ugaldute arte biziko da.
- Izokinari odol aunitz badario ere, bizirik iraun dezake.

## ZER DA IZOKIN BABESLE IZATEA? NOLA EGIN?

**Harrapatu dugun izokina bizirik utzi** eta basozainei emanen diegu, bi gauza hauetako bat egiteko:

- **Emisore batekin markatu** eta berriz ere ibaira botako dute. Horrela, izokina arrautza-tokira edo kabira iristen ote den jakinen dugu.

- Bertzenaz, izokina Oronoz Mugairiko **arrain-haztegira** eramanen dute eta han ugaltzailea izanen da, espeziearen populazio naturala Bidasoan indartzeko. Emisoreei esker, **uneoro jakinen dugu** Bidasoa ibaiko zer tartetan dauden **guk babestutako izokinak**. Horrela, hobeki jakinen ditugu izokinei buruzko gauza garrantzitsu batzuk: bizi-raupena, migrazioarako datak eta emariak, kabiak, eta izokin bakoitzak arrakasta izan duen ala ez ugaltzeko tenorean.

**Izokina babestuko duen arrantza-leari**, gainera, izokina nola dabilen jakinaraziko zaio. Arrantza-learen eginkizuna, beraz, hagitz garrantzitsua izanen da espeziea Bidasoa ibaian suspertzeko.

**BAINA, KASU, izokina era egokian harrapatu beharra dago bizirik irauten badu.**

Harrapatu ondoren izokina indarberritu beharko da ugaltzeko aukera izan dezan. Horretarako, pauso erraz baina garrantzitsuak bete beharko ditugu.

## IZOKINA HARRAPATZEKO MODUA

### Arrantza-tresnak

- **Amuak:** garrangarik gabeak edo garranga leunduta.

- **Zergatik?** Izokinari kalte txikiagoa eraginen diogulako eta amua errazago kenduko diogulako.

- **Amuzkiak:** euli-arrantzarako amu artifizialek sortzen dute beti kalterik txikiena. Amuzki naturalak desegokienak dira.

- **Zergatik?** Amuzki naturalekin amua sakon sar daitekeelako.

- **Kanabera eta haria:** zenbat eta sendoagoak izan, hobe.

- **Zergatik?** Horrela errazago eramanen dugulako izokina azkar eta seguru sarera; beraz, gutxiago borrokatu beharko dugu arrainarekin eta izokinak aukera handiagoa izanen du bizirik irauteko.

### Posturatik dena ongi prestatzea

- Toki egokia beharko dugu izokinak harkaitzen kontra jo ez dezan eta minik har ez dezan.

- Izokinaren mailara jaisteko moduko toki izan beharko da, arraina sarean aise sartzeko, airean altxatu behar izan gabe.

### Borroka

- Atera dezagun izokina lehenbailehen urlasterretik ur geldoetara eramateko.

- Saia gaitzen borrokaren denbora laburtzen, izokina jota ez gelditzeko.

- Saiatu behar dugu arraina arrastaka ez eramaten ibaiertzeko legarraren gainean. Harrien gainean arrastaka eramateak zauriak eragin ditzake infekzioak sortuz.

